

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1127

EBAZPENA, 2015eko otsailaren 25ekoa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatzeko 2015eko otsailako deialdian azterketa gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda onestekoa.

Ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatzeko azterketarako 2015eko lehenengo deialdia egin zen, Nekazaritzaren eta Abeltzaintza zuzendariaren 2014ko abenduaren 15eko Ebazpenaren zortzigarren puntuan xedatutakoa betetzeko (EHAA, 2014ko abenduaren 24koa, 245. zk.), eta epaimahai kalifikatzaileek proposatuta, honako hau.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onestea ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatzeko 2015eko lehenengo deialdiko azterketa gainditu duten izangaien zerrenda. Lurralde bakoitzeko azterketak epaitu dituzten epaimahaiak osatu dute zerrenda.

Bigarrena.– Zerrenda hori Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietako iragarki-ohoretan eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuna Sailaren web-orrian (www.nasdap.ejgv.euskadi.net) argitara dadila agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpenaren aurka, interesdunek gorako errekurtoa jar diezaiokete Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko otsailaren 25a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.